



ETXEZAINA

OINARRIZKO KONTZEPTUAK

- Ikastolako instalazioen mantentze orokor egokiarekin lotura duten funtzioak egozten zaizkio.
- Konponketetarako ikasleen klase orduak errespetatu behar dira, ahal den neurrian.
- Lanaldiaren malgutasuna, izan daiteke hainbat lan larunbatetan, igandetan edo jai egunetan egin beharra. Kasu honetan orduak noiz konpentsatu adostu beharko da.
- Izan daiteke obra lanak edota hauen jarraipena opor garaian egin behar izatea. Kasu honetan oporrak zelan eta noiz disfrutatuko adostu beharko da.
- Lan hitzarmenak eta Laudio ikastolako akordioak dioten bezala, urtean 1573 lan ordu bete beharko ditu eta ahal dela, udan 52 opor egun jarraian izan beharko ditu. Lanen antolaketatik opor egun guztiak hartu ezingo balitu, falta zaizkionak zelan disfrutatuko dituen adostuko litzateke, beti ere abuztuko egunak bermatuta.

FUNTZIOAK ETA EGIN BEHARRAK

- Ikastola ireki-itxi eta martxan jarri:
 - instalazioak ireki-itxi
 - argiak piztu-itzali
 - alarma jarri eta kendu
 - eguerdian ere, sarbideak ireki-itxi
- Ikastolako giltza guztien kudeaketa
- Instalazio guztietatik gainbegiraketa eta kontrolerako rondak egitea sistematikoki
- Ikastolarako instalazioen sarreraren kontrola eta zaintza era egokian egitea berma dadin.
- Eraikinaren eta honen erabilpenaren praktika ona bermatzea
- Kontsumoen irakurketa



- Berogailuak piztu eta itzali, instalazioak tenperatura onean egoteko ardura aurreikuspen batekin, gasoilaren prezioa kontuan hartuz
- Galdara gelaren egunerokoak zein gainbegiraketa: kalefazioko tenperatura, mantenu liburua egiaztatu, purgadoreak, ur beroa, galdara gelaren mantenua, ...
- "Reglamento electrónico para la baja tensión" araudiaren jarraipena. Lau urtetik behin inspektzioa dugu.
- Ondasun higigarri eta higiezin mantentze arruntaz arduratzen da, matxurarik balego, eta berak konpondu ezean teknikoak deitu eta konponketaren jarraipena egin.
- Bere lanetarako beharrezko materialak eta herramintak kudeaketa, inbentarioa, ordezkoko pieza eta bestelako osagarriak kudeatzen ditu.
- Kanpoko konponketen jarraipena egiten du.
- Lan berrien eta obren egikaritzea koordinatzen du, zuzendaritzaren gainbegirapenarekin, jarraipena egin.
- Lanak egiterakoan higieze eta segurtasun neurriak bete daitezkeen gainbegiratzen du.
- Planoen interpretazioa edota egitea
- Ikastolako patioen eta kanpoko kirol-instalazioak era egokian egoteaz arduratuko da.
- Lorategien mantentzea, setoak, zuhaitzak, belarra moztu, ...
- Mantentze lanak orokorrean, bai era prebentiboan zein era zuzentzailean: sukaldeak, sarbideak, kalefakzioa, instalazio elektrikoa, itoginak, umeltasunak, komunak, fotokopiadoreak, soldadura, ateak, margoketa, eraikinak, jolastokiak, teilatuak, ... horretarako beharrezkoak diren baliabideak erabiliz.
- Arriskutsuak izan daitezkeen kasuetarako esku-hartze eta jakinarazte prozedimenduak prestatzen ditu: elektrizitatea, gasa, produktu kimikoak...
- Ikastolako deseginkorreko biltegietaz arduratzen da: materialak apaletan jarri, ...
- Makinaria berriaren garantiak eta dokumentazioa gorde eta hauen funtzionamendua ikasi eta erakutsi.



- Ikastolako jarduera ezberdinetako muntaia eta desmuntaiaren lagundu: ikastolako jaia, krossa, jardunaldiak, ...
- Ondasunen eta materialaren garraiatzean lagundu: altzariak, ...
- Correos-era joan.
- Hustuketa planetan parte hartu
- Premiazko dei eta abisuei erantzutea, lanaldiaz kanpo izan daitezke
- Bulegoko noiz behinkako zaintza.
- Multikopista: aldez aurretik prestatutako kopiak eta zirkularra fotokopiatu eta banatu.
- Ikastolako GURASOEN AUZOLANAREN TXANDEN ANTOLAKETA eta KOORDINAZIOA
- Garbitzaileen arduraduna eta koordinatzailea
- Konponketa parteetan azaltzen direnen kudeaketa. Ikastolako ikasle, irakasle eta gainontzeko ez dozenteei laguntza.
- Gerente edota zuzendariak edota ikasketa buruek eskatzen dituztenak
- Garbiketarako materiala kudeatu: diru partidaren jarraipena, hornitzaileekin harremanak, ...
- Mantenu partiden kudeaketa: diru partidaren jarraipena, hornitzaileekin harremanak, ...
- Ur depositoaren garbiketa eta analisisen ardura
- Fumigacion eta desratizacion kudeaketa
- Txakurra izanez gero, dagoen tokiaren garbiketa eta txakurren ardura zuzena
- Mantenu, lan eta beharren lehentasunen zerrenda
- Mantenu arduradun bezala juntara joan behar izan ezker joatea
- ...

EZINBESTEKO BALDINTZAK

- Euskara maila altua (B2 parekoa)
- Gida baimena B
- Lanbide heziketa: mantenu edo lanarekin zerikusia duen moduluren bat izatea
- Ordutegiaren malgutasuna



BALORATUKO DA

- Bizilekuaren kokapena: ikastolan bertan, Laudio, mugakide
- Bazkide edo ikasle ohia izatea
- Antzerako lanpostuetan esperientzia
- Elektrizitate, iturkintza, margotze, arotzeria, soldadura, berogailu, ... ezagutzak

ESKAITZEN DA

- Etxezaina lanpostua: Lan Hitzarmenaren arabera: koalifikazio profesionala eta esperientzia izateagatik eta horretarako bereziki kontratatua izan delako, atezaintzako ohiko lanak egiten ditu eta baita ikastolako mantentzerako ofizial mailari dagozkionak ere.
- Lanaldi osoko lanpostua eskaintzen da, 6 hileko froga epea edukiko du.
- Soldata, lan hitzarmenaren arabera
- Ikastolan bertan bizitzeko AUKERA
- ORDUTEGIA:
 - Erreferentziazko ordutegia, ikus lan egutegi proposamena
 - Aurretiaz hitz egindako malgutasunak lan egutegian isla edukiko du

HAUTAKETA FROGAK

- Lanpostuarekin harremana duten froga praktikoak egingo zaizkie
- EUSKARA titulurik izan ezean idatzizko froga egingo da